

Soinuenea herri musikaren topakeluak 20 urte bete ditu

Martxoan 20 urte beteko dira Soinuenea, Oiartzungo Herri Musikaren Museo eta Dokumentazio Zentroak atek zabaldu zituenetik.

Soinuenean Juan Mari Beltran etnomusikologo eta euskal musika herrikoiairen figura garrantzitsuenetakoaren soinu-tresna tresna bilduma dago. Liburutegian, irudi artxiboan eta fonotekan bildutako irudi, liburu, diska, partitura, filmazio eta bestelakoak osatzen duten funtsak erakartzen ditu musikari eta ikertzaileak Soinueneako Dokumentazio Zentrora.

Oiartzungo Herri Musikaren Museoak modu entretenigarrian hurbildu ditu herri musika eta instrumentuak ikastetxeetara, musika eskoletara eta tailer zein bisita didaktikoetan parte hartu duen publiko arruntera.

20 urte hauetan, Soinuenea kultura musikal herrikoia ezagutzeko, zabaltzeko, ikasteko eta gozatzeko gune bihurtu da. Ospatzeko, Soinueneak, Herri Musikaren Txokoak, 20 Urteurreneko Programazio Berezia prestatu du, urte osoan zehar herri musikaz gozatzeko. [Martxoko agendan asteburuero kalejira eta kontzertuak izango dira Oiartzunen.](#)

Soinuenea, Euskal Herriko musika eta instrumentu herrikoien erreferentea.

2002ko martxoaren 1ean sortu zenetik, Soinuenea herri musika eta herri soinu-tresnen topaleku izan da mundu osoko musikari eta ikertzaileentzat. Baita Museoko jarduerak bisitatu dituzten edo horietan parte hartu duten pertsona guztiena ere, Soinueneako bildumak orain arte katalogatutako 1.614 soinu-tresna horietatik 400dik gora erakusten baititu.

Tailer eta bisita didaktikoekin batera, Soinuenearen hezkuntza-lana [Oiartzungo Herri Musika Eskolarekin](#) aratago doa. Eskarmentu handiko irakasleek Euskal Herriko herri musika tresnak jotzen irakasten dute: txalaparta, herri perkusioa, biolina, txistua eta danbolina, alboka, dultzaina eta xirolarrua.

Horrekin batera, herri musikarekin zerikusia duten jardunaldiak, kontzertuak eta kultur programazio mota guztiak antolatzen dira (erromeriak, kalejirak, dokumentalen proiektzioak).

Soinueneako Dokumentazio Zentroaren dibulgazio- eta ikerketa-lana hainbat argitalpenetan gauzatu da, hala nola *ALBOKA. Inguru FOLKLORIKOTIK ESKOLARA, PIERRE CAUBET: "Pethi Xubuko Arhane"* eta *Soinu-tresnak Euskal Herri Musikan Entziklopedia*, azken honen lehen liburukia 2021eko abenduan argitaratu zen, zentroko ikertzaileek 2025era arte jarraituko dute lanean egitasmo honekin.

Museoa lanean ari da Euskal Herrian Herri Musikaren topaleku izaten jarraitzeko, eta etorkizuneko erronkei aurre egiten die – Mundu digitalerako jauzia eta sare sozialetako komunikazio-modu berriak, esaterako –, lehen eguneko ilusio berarekin.

KONTAKTUA:

Orkatz Arbelaitz

komunikazio@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus

Facebook: <https://www.facebook.com/soinuenea>

YouTube: <https://www.youtube.com/user/HerriMusikarenTxokoa>

AURKEZPEN BIDEOA:

Gipuzkoa Kultura: <https://www.youtube.com/watch?v=bVQLYGVOO1k&t=606s>

ARGAZKIEN OINAK:

1. Soinueneako gidari bat bisitan etorri diren ikasleen aurrean zarrabetea jotzen. Soinuenea, 2021.
2. Udako herri musika kontzertuan *L'Uva Grisa* talde italiarra Oiartzungo plazan kantari. Oiartzun, 2012.
3. Soinueneako ataria. Soinuenea, 2019.